

## **Udalen esku dauden Oinarrizko Lanbide Heziketa zentroak indartzeko neurriak hartzeari buruz**

### **ZIOA**

Oinarrizko Lanbide Heziketa zenbait zentro egun oraindik udalen kudeaketaren esku daude. Ikastetxe hauek, Hezkuntza Saileko, Lanbide Hezkuntzako Sailburu ordetzaren menpekoak izan arren, udalek kudeatzen dituzte eginkizunen eskuordetza baten bidez.

Momentu honetan, hurrengo 5 urteetan zerbitzu honen kudeaketa arautzen duen dekretua lantzen ari da Saila udalerriekin batera. Hori horrela, momentu egokia da Oinarrizko Lanbide Heziketaren oinarriak sendotzeko.

Oinarrizko Lanbide Heziketak ikaslearen garapen pertsonal eta profesionala izan behar ditu helburu. Horrela, ezinbestean integrazio soziala lortzea, ikaste prozesua berreskuratzea eta lan munduan sartzeko bitartekoak eskaini behar dizkie ikasleei.

Hala ere, aipatu helburu hauek lortzeko udalek bitarteko ekonomikoak izatea beharrezkoa da. Finean, bitarteko hauei esker eskaini ahalko dituzte kalitatezko hezkuntza prozesuak.

Guzti hau oinarri, udal honek, Hezkuntza Sailari eskatzen dio,

### **Udal honek eskatzen du:**

1. Udalen bidez kudeatzen den Oinarrizko Lanbide Heziketa indartzeko konpromisoa har dezala.
2. Indartze hori gauzatzeko udalei egiten zaien ekarpen ekonomikoa handitzeko konpromisoa har dezala, kalitatezko zerbitzua helburu.
3. Gizareratzean laguntzeko lanpostua finantzatzeko konpromisoa har dezala.
4. Inbertsioak egiteko finantzazio lerro berri bat sortzeko konpromisoa har dezala.

5. Udalen esku dauden, Oinarrizko Lanbide Heziketan lan egiten duten profesionalak erakunde publikoko langile izaki, hauen lan esperientzia, lanbide heziketako zentro publikoetako berdina izatea garapen profesionalean lagungarri izan dadin konpromisoa har dezala.
6. Udalak, mozio honen berri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eta Hezkuntza batzordeko kideei emango die.

Euskal Herrian, 2021eko otsailaren 11ean